

nikus  
ker.

TikTok

40. TXOSTENA • 2023KO MARTXOA



# AURKIBIDEA

1. ZER DA IKUSIKER.....	2
2. OHAR METODOLOGIKOAK .....	3
3. EMAITZAK.....	4
3.1. TIKTOK.....	4
3.2 TIKTOKEKO SORTZAILEAK .....	8
4. LABURREAN.....	11

**Nola aipatu:** *Ikusiker (2023): TikTok. 40. Txostena. UPV/EHU. [www.ikusiker.eus](http://www.ikusiker.eus)*

# 1. IKUSIKER

Euskal Herriko gazteek dauzkaten ikus-entzunezkoen kontsumoak eta Informazio eta Komunikazio Teknologien (IKT) erabilerak aztertzen ditu IKUSIKER ikerketak (Applika+ izeneko proiektua: US22/23).

Ikerketa burutzeko, Bigarren Hezkuntzako eta unibertsitateko ikasleez osatutako bi panel daude martxan eta aldiro-aldiro inkestak luzatzen zaizkie, 12-23 urte bitarteko gazte hauek dituzten portaerak ezagutzeko.

Egitasmo hau, 2018-2019 ikasturtetik aurrera UPV/EHUko NOR taldeak, EITBk, Kulturaren Euskal Behatokiak, Tabakalerak eta Euskararen Erakunde Publikoak burutzen dute, tokian tokiko ikasketa-zentroekin elkarlanean.



**UPV/EHUko Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea**

**Sarriena auzoa z/g, 48940 Leioa (Bizkaia)**

**+34 747 414 355**

**[ikusiker@ehu.eus](mailto:ikusiker@ehu.eus)**

## 2. OHAR METODOLOGIKOAK

Ikerketa burutzeko, Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV/EHU) eta Nafarroako Unibertsitate Publikoko (NUP) bi mila ikasletik gorako panela osatu da. Unibertsitari hauek modu iraunkor eta maiztasun handiz erantzuten dituzte luzatzen zaizkien online galdera-sortak ([www.encuestafacil.com](http://www.encuestafacil.com) plataforma erabiliz), beti ere ikus-entzunezkoen kontsumoei eta IKTen erabilerei buruzkoak. Landa-lana eta datuen kudeaketa egiteko Aztiker Soziologia Ikerlanean laguntza jaso dugu.

Txosten honetan aurkituko daitezke 2023ko otsailaren 6tik 17ra bitartean, TikTok sare sozialari buruz eginiko inkestaren emaitzak. Guztira, 18 eta 23 urte bitarteko 1.856 ikasleen erantzun baliagarri jaso dira.

Dokumentuaren hasieran, TikToken gaineko galderen emaitzak eskaintzen dira: irismena, koneksioa maiztasuna, erabilera desberdinak, jarraitzen diren perfilak eta balorazio orokorra, besteak beste. Ondoren, TikTokeko sortzaileen inguruko galderak egin dira: zer motatako edukiak sortzen dituzten eta zein hizkuntzetan, besteak beste.

### 3. EMAITZAK


#### 3.1 TIKTOK

Inkesta honetan TikToki buruz galdetu da bereziki, zer-nolako edukiak ikusten diren eta sortzen diren. Inkestatuen % 66,1ek TikTokeko kontu bat dauka.

##### 1. Irudia – Baduzu TikTok konturik?

	Maiztasuna	Ehunekoak (%)
Bai	1.223	66,1
Ez	627	33,9
Guztira	1.850	100,0

Iturria: Ikusiker, Applika+




Erdiek baino gehiagok egunero edo ia egunero erabiltzen dute gutxienez aplikazio hori (%54,1ek). Hain justu, sare sozial honen erabilerari dagokionez, inkestatuen herena bi muturretan kokatzen da: %34,4k ez du inoiz erabiltzen, eta %30,2k egunero behin baino gehiagotan.

##### 2. Irudia - Zenbatero erabiltzen duzu TikTok?

	Maiztasuna	Ehunekoak (%)
Inoiz ez	639	34,4
Hilean behin	55	3,0
Astean behin	39	2,1
2-5 aldiz astean	118	6,4
Egunero	444	23,9
Egunean behin baino gehiagotan	561	30,2
Guztira	1.856	100,0

Iturria: Ikusiker, Applika+




Aukera izango balute, panelista ia gehienek TikTok gutxiago erabili nahiko luketela adierazten dute, %71,8k hain justu. Horien artean, %39,2k dio askoz denbora gutxiago eskaini nahiko lioketela eta %32,5ek apur bat gutxiago. Besteen artean, ia denek adierazten dute konforme daudela egungo erabilerarekin: %26,8k ez lukete aldaketarik nahiko eta %1,4 soilik da gehiago erabili nahiko lukeena.

### 3. Irudia - Aukera izango bazenu, denbora gehiago ala gutxiago pasatuko zenuke TikTok-en?

	Maiztasuna	Ehunekoa (%)
Askoz denbora gutxiago	475	39,2
Denbora apur bat gutxiago	394	32,5
Ez gehiago ezta gutxiago ere	325	26,8
Denbora apur bat gehiago	13	1,1
Askoz denbora gehiago	4	0,3
Guztira	1.211	100,0

Iturria: Ikusiker, Applika+




TikTokera, nagusiki, telefono mugikorraren bidez sartzen dira ia guztiak (%97,8). Bigarren lekuan tableta agertzen da, %1,5ek aipatuta, eta hirugarrenean ordenagailu eramangarria, %0,5en kasuan.

#### 4. Irudia - Zein gailu erabiltzen duzu gehien TikTokera sartzeko?

	Maiztasuna	Ehunekoak (%)
Telefono mugikorra	1.183	97,8
Tableta	18	1,5
Ordenagailu eramangarria	6	0,5
Telebista pantaila	1	0,1
Bestelakoa	1	0,1
Guztira	1.209	100,0

Iturria: Ikusiker, Applika+




TikToken egin daitezkeen jarduera batzuei buruz galdetu da baita ere. Sarrien egiten diren bi jarduerak “TikToken erabilera orokorrean” eta “beste erabiltzaileek igotako edukiak ikusi” izan dira: egunero edo ia egunero egiten dituzte inkestaturen hamarretik zortzi inguruk eta egunero behin baino gehiagotan egiten dituzte inkestaturen erdiek baino gehiagok (%55,2 lehenengoaren kasuan eta %50,7 bigarrean). Hirugarren lekuan, nahiko maiztasun altuarekin baita ere, “atsegin ditudan bideoetan bihotzari eman” ekintza gelditu da: herenak dio egunero behin baino gehiagotan egiten duela (%34,4k) eta egunero edo ia egunero egiten dutenak gehituta panelisten %59,2 dira. Azkenik, inkestaturen %80tik gorak ez ditu hiru ekintza inoiz egin: “besteen bideoetan iruzkinak/aipamenak idatzi”, “bideoak igo” eta “zuzenekoak egin (live)”.

#### 5. Irudia - Zein maiztasunekin egiten diren ekintza batzuk TikToken

	Ez dut inoiz egin ala oso gutxitan	Hilean behin baino gehiagotan	Astean behin	Astean behin baino gehiagotan	Egunero edo ia egunero	Egunero behin baino gehiagotan
TikToken erabilera orokorrean	4,0	2,5	3,4	7,9	26,9	55,2
Beste erabiltzaileek igotako edukiak ikusi	4,1	3,0	4,3	9,7	28,2	50,7
Atsegin ditudan bideoetan bihotzari eman	12,9	6,6	6,8	14,5	24,8	34,4
Besteen bideoetan iruzkinak/aipamenak idatzi	81,8	7,3	3,6	3,9	2,2	1,2
Bideoak igo	89,8	6,6	1,9	1,2	0,5	0,1
Zuzenekoak egin (live)	97,6	1,0	0,7	0,5	0,0	0,2

Iturria: Ikusiker, Applika+




TikToken ikusten diren bideoetan, hizkuntza nagusia gaztelania da ia hiru laurdenentzat (%73,9 zehazki) eta beste laurden batentzat ingelesa da (%24,4). Beste hizkuntzen artean, %1,7 kokatzen da.

6. Irudia - TikToken ikusten dituzun bideoetan zein da hizkuntza nagusia?

	Maiztasuna	Ehuneko (%)
Euskara	3	0,2
Gaztelania	893	73,9
Ingelesa	295	24,4
Frantsesa	1	0,1
Beste bat	17	1,4
Guztira	1.209	100,0

Iturria: Ikusiker, Aplikia+






## 3.2 TIKTOKEKO SORTZAILEAK

TikToken edukirik sortzen al duten galdetuta, gehienek ezetz adierazi dute (%81,6k). Edukiren bat sortzen dutela esan duten 226 pertsoneri (% 18,6) galdera gutxi batzuk egin zaizkie plataforma honetan egiten duten sormen lanari buruz.

### 7. Irudia – Igotzen al duzu bideorik TikTokera?

	Maiztasuna	Ehunekoak (%)
Bai	226	18,6
Ez	991	81,4
Guztira	1.217	100,0

Iturria: Ikusiker, Applika+




Gehien sortzen diren eduki moten inguruan galdetuta, panelisten artean honako kategoriak izan dira aipatuena: “bideo barregarriak” (%22,3), “tendentzia diren bideoen bertsioak (biralak, hashtag popular...)” (%20,1), “koreografiak” (%17,9) eta “nire egunerokoan pasatzen zaizkidan gauzen bideoak” (%12,2).

### 8. Irudia - Zeintzuk dira TikTokera igotzea gogokoen dituzun bideoak?

	Maiztasuna	Ehunekoak (%)
Bideo barregarriak.	51	22,3
Tendentzia diren bideoen bertsioak (biralak, hashtag popular...)	46	20,1
Koreografiak.	41	17,9
Nire egunerokoan pasatzen zaizkidan gauzen bideoak.	28	12,2
Challenge-ak.	11	4,8
Kantuen coverrak.	10	4,4
Bestelakoak	42	18,3
Guztira	229	100,0

Iturria: Ikusiker, Applika+




Hizkuntzari dagokionez, ia hamarretik zazpik dio beti gaztelaniaz sortzen dituela bideoak (%69,5ek), eta gaztelaniaz euskaraz baino gehiago sortzen dutenak gehituta panelisten %81,9 izatera iristen dira. Ondoren, euskara eta gaztelania ez den beste hizkuntza batzuk datoz, % 10,6k aipatuta. Euskaraz gaztelaniaz bezainbeste edo gehiago sortzen duten panelistak % 7,5 dira.

9. Irudia - Hizkuntza aldetik, ze hizkuntza erabiltzen duzu TikTokerako sortzen dituzun bideoetan?

	Maiztasuna	Ehunekoa (%)
Beti euskaraz sortzen ditut bideoak.	4	1,8
Euskaraz gaztelaniaz baino gehiago sortzen dut.	5	2,2
Bai euskaraz eta bai gaztelaniaz proportzio berdinean sortzen dut.	8	3,5
Gaztelaniaz euskaraz baino gehiago sortzen dut.	28	12,4
Beti gaztelaniaz sortzen ditut bideoak.	157	69,5
Euskara eta gaztelania ez diren beste hizkuntza batean gehiago	24	10,6
Guztira	226	100,0


Iturria: Ikusiker, Applika+



TikToki, batez beste, 7,4ko puntuazioa jarri zaio 0 eta 10 bitarteko eskala batean. Gehien aukeratutako puntuazioa 8koa izan da, panelisten %34,7 bertan kokatu baita.

### 10.Irudia – TikToki nota bat jarri beharko bazenio, nolakoa jarriko zenioke?

	Maiztasuna	Ehunekoak (%)
10	12	5,3
9	32	14,2
8	78	34,7
7	66	29,3
6	13	5,8
5	18	8,0
4	2	0,9
3	1	0,4
2	0	0,0
1	1	0,4
0	2	0,9
Guztira	225	100,0
<b>Batezbestekoa</b>	<b>7,4</b>	



## 4. LABURREAN

-Inkestatuen % 66,1ek TikTokeko kontu bat dauka, eta %54,1ek egunero edo ia egunero erabiltzen dute.

- TikTokera, nagusiki, telefono mugikorraren bidez sartzen dira ia guztiak (%97,8).

- TikToken egin daitezkeen jarduera aipatuenak “TikToken erabilera orokorrean” eta “beste erabiltzaileek igotako edukiak ikusi” izan dira.

- %81,6k ez du edukirik sortzen TikToken. Gehien sortzen diren eduki moten inguruan galdetuta, panelisten artean “bideo barregarriak” izan dira hautatuenak (%22,3).

- TikToki, batez beste, 7,4ko puntuazioa eman diote panelistek 0 eta 10 bitarteko eskala batean.